

TRIGEMINOAREN NEURALGIAREN TRATAMENDU GISA GASSER GONGOILAREN TERMOKOAGULAZIOA EGITEKO BAIMEN INFORMATUA CONSENTIMIENTO INFORMADO PARA TERMOCOAGULACIÓN DEL GANGLIO GASSER PARA TRATAMIENTO DE LA NEURALGIA DEL TRIGÉMINO

A. IDENTIFIKAZIOA:

MEDIKU ARDURADUNAREN IZENA:
..... Data:

A. IDENTIFICACIÓN:

NOMBRE DEL MEDICO RESPONSABLE:
..... Fecha:

B. INFORMAZIOA:

Trigeminoaren neuralgia nerbio trigeminoaren inflamazio oso mingarria da; min handia eragiten du aurpegian, eta aurpegiko muskuluen espasmoak, nerbioa dagoen aldean. Eraso mingarri horiek aurpegiko larruzaleko eremuak, kranioko nerbio horren bidean, arinki ukitu ondoren ager daitezke. Medikamentu espezifikoak oso eraginkorrak izan daitezke erasoen maiztasuna txikitzeko, baina litekeena da ebakuntza kirurgiko bat behar izatea.

Tratamendu farmakologikoari erantzuten ez dioten kasuetan joko da kirurgiara, edo medikazioaren albo-ondorioak garrantzitsuak direnean. Prozedura oso sinplea da eta, beraz, arrisku handiko gaixoetan ere egin daiteke (zaharrak edo konpromiso sistemiko garrantzitsua dutenak), eta behar bezainbestetan errepikatu daiteke.

Helburua minaren zuntzak (nozizeptoreak) selektiboki suntsitzean datza, eta ukimen-zuntzak kontserbatzean. Horretarako trigeminoaren gongoilera (Gasser) jotzen da, garezurraren oinaldean dagoen zulo obalean zehar, eta kontrol erradiografikoa erabiltzen da orratza behar den lekuan jartzeko. Prozedura horretarako, sedazioa eta anestesia lokala ematen da.

Beharrezkoa izango da behaketa, konplikazioak alde batera uzteko. Behaketan egon ondoren, zure gelara itzuliko zara, eta hurrengo egunean alta emango dizute.

C. ARRISKUAK ETA KONPLIKAZIOAK:

- Listu-jarioaren edo malko-jarioaren alterazioak: % 20. Disestesia (sentsibilitatearen alterazioa) edo parestesia (inurritze-sentsazioa) gogaikarriak: garrantzi txikikoak (% 9), garrantzitsuak (% 2), anestesia mingarri akutua (% 0,2-4).

B. INFORMACIÓN:

La neuralgia del trigémino es una inflamación extremadamente dolorosa del nervio trigémino que causa dolor facial (cara) severo y espasmo de los músculos faciales en el lado comprometido. Estos ataques dolorosos se pueden presentar después de tocar ligeramente áreas cutáneas de la cara, a lo largo del curso de este nervio craneano. Los medicamentos específicos pueden ser muy efectivos para reducir la frecuencia de los ataques, pero es posible que se requiera una intervención quirúrgica.

La cirugía queda reservada para aquellos casos que no responden al tratamiento farmacológico o cuando los efectos secundarios de la medicación son importantes. Dado la simplicidad del procedimiento, puede ser realizado incluso en enfermos de alto riesgo (ancianos o con compromiso sistémico importante) y ser repetido cuantas veces sea necesario.

El objetivo es destruir selectivamente las fibras del dolor (nociceptivas) conservando las fibras táctiles. Para ello se aborda el ganglio del trigémino (Gasser) a través del agujero oval situado en la base del cráneo, usando control radiográfico para lograr la colocación correcta de la aguja. El procedimiento se realiza con sedación y anestesia local.

Será necesaria la observación para descartar complicaciones. Tras este periodo de observación, podrá regresar a su habitación y ser dada de alta al día siguiente.

C. RIESGOS Y COMPLICACIONES:

- Alteraciones de la salivación o del lagrimeo: 20%. Disestesias (alteración de la sensibilidad) o parestesias molestas (sensación de hormigueo): menores (9%), mayores (2%), anestesia dolorosa severa (0.2-4%).



- Maseteroaren edo pterigoideoaren (mastekatzeko muskulua) paresia partziala (mugimendua galtzea), normalean sumatzen ez dena: % 7-24.
- Keratitis neuroparalitikoa (kornearen inflamazioa): % 2-4.
- Paresia okulomotorra (begiaren mugimendua galtzea), normalean aldi baterako: % 0-2.
- Meningitisa (% 0,3).
- Garezur barneko odoljarrio hilgarria (hipertentsio akutu igarokorragatik): 6 kasu 14.000 ebakuntza baino gehiagotan.
- Emaitzek % 91-99ko arrakasta erakusten dute; % 19tan sintomak berriz agertzen dira 6 urtera, eta % 80tan 12 urtera.
- Paresia parzial (perdida de movimiento) de masetero o pterigoides (músculos para la masticación), habitualmente no percibida: 7-24%.
- Queratitis neuroparalítica (inflamación de la córnea): 2-4%.
- Paresia oculomotora (perdida del movimiento del ojo), habitualmente temporal: 0-2%.
- Meningitis (0.3%).
- Hemorragia intracraneal fatal (por hipertensión severa transitoria): 6 casos en más de 14.000 intervenciones.
- Los resultados contemplan 91-99% de éxito, con recurrencia (vuelta a aparecer los síntomas) de 19% a los 6 años y 80% a los 12 años.

OSPITALEAK BEHAR DIREN BITARTEKOAK IZANGO DITU PREST, GERTA DAITEZKEEN KONPLIKAZIOAK TRATATZEKO.

EL HOSPITAL PONDRÁ A SU DISPOSICIÓN LOS MEDIOS NECESARIOS PARA TRATAR ESTAS POSIBLES COMPLICACIONES.

D. ESAN IEZAGUZU:

Halakorik baduzu, esan behar diguzu: medikamentuekiko alergia, koagulazioaren asaldurak, bihotz-biriketako gaixotasunak, protesiak, taupada-markagailuak, egungo medikazioa, edo beste edozein kontu; izan ere, arriskuen edo konplikazioen maiztasuna edo larritasuna handiagoa izan daiteke haien eraginez.

E. ARRISKU PERTSONALAK:

Egoera pertsonal jakin batzuek eta gaixotasunek (diabetesa, arteria-hipertentsioa, anemia...) arriskuen edo konplikazioen maiztasuna edo larritasuna areagotu dezakete. Medikiak eman dizu zure kasuan dauden arrisku zehatzen berri.

F. ORDEZKO AUKERAK:

Errekurrentziak erraz trata daitezke, teknika hau berriz errepikatuz.

Prozedura honen hiru aldaera daude:

- Termokoagulazioa erradiofrekuentziarekin tenperaturaren bidez
- Rizotomia erretrogaserianoa glizerolarekin.

D. AVÍSENOS:

Es necesario que nos advierta de posibles alergias medicamentosas, alteraciones de la coagulación, enfermedades cardiopulmonares, existencia de prótesis, marcapasos, medicaciones actuales o cualquier otra circunstancia, ya que pueden aumentar la frecuencia o la gravedad de riesgos o complicaciones.

E. RIESGOS PERSONALIZADOS:

Algunas circunstancias personales específicas y enfermedades (diabetes, hipertensión arterial, anemia...) pueden aumentar la frecuencia o gravedad de riesgos o complicaciones. Su médico le ha informado acerca de los riesgos específicos en su caso.

G. ALTERNATIVAS:

Las recurrencias pueden ser tratadas fácilmente mediante repetición de esta técnica.

Hay tres variantes de este procedimiento:

- Termocoagulación con radiofrecuencia mediante temperatura
- Rizotomía retrogaseriana con glicerol.

- Trigemino-gongoilaren larruazalean zeharreko mikrokonpresioa, Fogarty baloi-kateter bat larruazalean zehar sartuz.

Beste teknika bat deskonpresio mikrobaskularra da; mina arintzeko metodo eraginkorra da pazienteen ehuneko handi batean, trigeminoan lesiorik eragin gabe.

Datuen babesari buruzko oinarritzko informazioa: interesdunari jakinarazten zaio bere datu pertsonalak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak tratatuko dituela. Tratamendu HISTORIKO KLINIKOaren helburua da pazientearen historia klinikoko datuak izatea, haren jarraipena egiteko eta asistentzia-jarduera kudeatzeko, interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean egindako misio bat betez. Datuak jakinaraz dakizkieke Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, GSINi, agintaritzak judizialei eta aseguru-erakundeei. Datuak interesdunak berak, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Osakidetza osasun-langileek emandakoak dira. Interesdunak datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, bai eta haien tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko ere. Datuak babesteari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jo webgune honetara:

<http://www.osakidetza.euskadi.eus/protecciondatos>

- Microcompresión percutánea del ganglio trigeminal con un catéter-balón de Fogarty insertando percutáneamente.

Otra técnica es la descompresión microvascular estableciéndose como un método efectivo de aliviar el dolor en un gran porcentaje de pacientes sin causar lesión trigeminal.

Información básica sobre protección de datos: Se informa a la persona interesada de que sus datos personales serán tratados por Osakidetza – Servicio vasco de salud. La finalidad del tratamiento HISTORIAL CLINICO es la de disponer de los datos de la Historia Clínica del paciente para el seguimiento del mismo y la gestión de la actividad asistencial, conforme al cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento. Pueden realizarse comunicaciones de datos al Departamento de Salud del Gobierno Vasco, al INSS, a autoridades judiciales y entidades aseguradoras. Los datos proceden de la propia persona interesada, del Departamento de Salud del Gobierno Vasco y de personal sanitario de Osakidetza. La persona interesada tiene derecho de acceso, rectificación, supresión de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento. Podrá ampliar información en materia de protección de datos en la siguiente dirección web:

<http://www.osakidetza.euskadi.eus/protecciondatos>

DOKUMENTU HAU SINATZEN DUT ONGI IRAKURRI OSTEAN ETA NIRE ZALANTZAK GALDETU ETA ARGITZEKO AUKERA IZAN OSTEAN. BERAZ, ZER EGIN BEHAR DIDATEN ULERTU ONDOREN, ITXARON DAITEZKEEN EMAITZEN ETA HORTIK ERAGIN DAITEZKEEN ARRISKUEN BERRI IZAN ONDOREN

FIRMO ESTE DOCUMENTO DESPUÉS DE HABERLO LEÍDO Y HABER TENIDO LA OPORTUNIDAD DE PREGUNTAR Y ACLARAR MIS DUDAS. POR TANTO, DESPUÉS DE HABER ENTENDIDO LO QUE SE ME VA A HACER, LOS RESULTADOS ESPERADOS Y LOS RIESGOS QUE DE TODO ELLO PUEDAN DERIVARSE.

Pazientea/ El Paciente

Pazientearen izen-abizenak

Nombre, dos apellidos

Sinadura eta data

Firma y fecha

Medikua/EI/La Médico

Medikuaren izen-abizenak eta elkargokide-zk.

Nombre, dos apellidos y nº de colegiado del/de la médico/a

Sinadura eta data

Firma y fecha

Legezko Ordezkaria: adingabekorik edo pazientearen ezgaitasunik egotekotan / Representante legal: en caso de incapacidad del paciente o menor de edad

Legezko ordezkariaren izen-abizenak, NAN eta ahaidetasuna

Nombre, dos apellidos, DNI y parentesco del representante legal

Sinadura eta data

Firma y fecha

Pazientearen edo legezko ordezkariaren ATZERA EGITEA / DESISTIMIENTO del paciente o representante legal

Adierazitako prozedurapean EZ JARTZEAREN irismena eta arriskuak ulertzen ditut. Eta halako baldintzetan atzera egiteko eskubidea egikaritzen dut.

Comprendo el alcance y los riesgos de NO SOMETERME al procedimiento indicado. Y en tales condiciones ejerzo mi derecho de desistimiento

Sinadura eta data

Firma y fecha